

1.3: Donostiako hiru damatxo

Andantino

Donos - ti - a - ko hi - ru da - matxo Erren - te - ri - an den - da - ri. Do - nos -
 ri: Jos - ten e - re ba - da - ki - te baina ar - do a e - da - ten ho - be - ki. E - ta kris - ki - tin,
 kras - ki - tin, a - rro - sa kra - be - lin, ar - do a e - da - ten ho - be - ki.

1

Donostiako hiru damatxo
 Errenterian dendar¹.
 Josten ere badakite baina
 ardoa edaten hobeki.
 Eta kriskitin, kraskitin,
 arrosa krabelin,
 ardoa edaten hobeki.

2

Donostiako Gaztelupeko
sagardoaren gozoa,
 hantxen edaten ari nintzala
 hautsi zitzaidan basoa.
 Eta kriskitin, kraskitin,
 arrosa krabelin,
 basoa kristalezkoa.

3

Donostiako hiru damatxo
 hirurak gona gorriak,
 sartutzen dira tabernara ta
 irtetzen dira hordiak
 eta kriskitin, kraskitin...

4

Donostiako hiru damatxo
 egin omen dute apustu,
 zeinek ardo gehiago edanda,
 zein gutxiago mozkortu.
 Eta kriskitin, kraskitin...

5

Donostiako hiru damatxo
 Errenteriko kalean,
 egunez oso triste ibili,
 baina dantzatu gauean.
 Eta kriskitin, kraskitin...

6

Donostiako neskatxatxoak
 kalera nahi dutenean:
 – Ama, piperrik ez dago eta
 banoa salto batean.
 Eta kriskitin, kraskitin...

1. Dendar¹: joandako mendean nonbait ez zen gaur bezala denda bat, edozein tankeratakoa, duena. *Jostu-
na* esan nahi omen zuen. Horrela garbiago ulertzen da kantaren esanahia.

7

Donostiako neskatxatxoak
mandatuen aitzakian,
mutilarekin egoten dira
kalean jolaskerian.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
pozez algara haundian.

8

Donostiarrak ekarri dute
Getariatik akerra,
kanpandorrean ipini dute
aita santutzat dutela.
Eta kriskitin, kraskitin...

9

Donostiako arrantzaleak
dira txit gizon bapoak.
Gaztelupeko sagardoakin
egiten ongi tragoak.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin
maiz bustirikan ahoak.

10

Arrosatxoak bost hosto ditu
krabelintxoak hamabi.
Mari Joxepa nahi duen horrek
eska bezaio amari.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
eska bezaio amari.

Donostiako hiru damatxo horiek nor ziren ez dakit. Baina kanta honek fama eman die. Euskal Herri osoan ezaguna da eta Donostia inguruan batez ere. Gipuzkeraz azaltzen da hemen. Doinuak kanpoko jatorria du nonbait. Irlandako kantu bildumetan azkeneko zatia igoala duen abestia agertzen da. XVIII. mendean doinu hau eta *Inazio* martxarena dira, paperetan behintzat, Euskal Herrian zabalduenak. Xabier Munibe Peñafloridako Kondearen *La canción del vino* delako sortan, erdarazko hitzez dago. Eta Blas de Laserna nafarraren *La Vizcaina* tonadillan, 1784.ean idatzia, azkenean azaltzen da *Canción de Vizcaya* izenburuz eta *con tambores* jotzeko oharrez. Hitzak ere hemengo lehenengo bertsoak ditu hartan.

Aurreneko laupabost bertsoek arnasaldi batean sortuak ematen dute. Besteak, ziurrenik, pixkanaka Donostiako soziedadeetako giroan gehituak izango dira noski.


**DONOSTIYAKO
IRV DAMATXO**

Andante


Do - nos - ti - ya - ko i - ru da - ma - txo E - rre
- de - ri - an den - da - ri. Jos - ten e - re ba - da - ki
te ba - ña ar - do e - da - ten o - be - ki. E - ta krix - ki - tin
krix - ki - tin a - rro - sa kra - be - lin ar - do e - da - ten o - be - ki. Jos - te

The musical score is written in a 6/8 time signature with a key signature of two flats (B-flat and E-flat). It consists of four systems, each with a vocal line and a piano accompaniment. The piano accompaniment features a steady eighth-note bass line and chords in the right hand. The lyrics are in Basque and describe the city of Donostia (San Sebastián) and its location on the coast.


36. DONOSTIAKO IRU DAMATXO



Do-nos-ti-a-ko i-ru da-matxo Er-ren-ds-ri-en den-da-



ri Do-nos-ri jos-tan e-re ba-da-ki-ta, ba-ña ar-do e-ra-ten o-be-ki. Ta kris-ki-lin,



kras-ki-lin ar-ro-sa kra-be-lin, ar-do e-ra-ten o-be-ki.

1

Donostiako iru damatxo
Errenteriyen dendar
josten ere badakite baña
ardoa eraten obeki;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
ardoa eraten obeki.

2

Donostiako Gaztelupeko
sagarduaren goxua,
antxen eraten ari nintzala
autsi zitzaidan basua;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
basua kristalezkua

3

Donostiako iru damatxo
irurak gona gorriak,
sartutzen dira tabernara ta
irtetzen dira ordiak;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
irtetzen dira ordiak.

4

Donostiako iru damatxok
egin omen dute apostu,
zeñek ardo geyago eranda
zein gutxiago moskortu;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
zein gutxiago moskortu.

5

Donostiako iru damatxo
Errenteriko kalia,
egunez oso triste ibilli
bañan dantzatu gabian;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
bañan dantzatu gabian.

6

Donostiako neskatxatxuak
kalera nai dutenian:
—ama piperrik ez dago eta
banua salto batian;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
banua salto batian.

7

Donostiako neskatxatxuak
mandatuen aitzekiyan,
mutillakin egoten dira
kalian jolaskeriyan;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
pozez algara aundiyan.

8

Donostiarrak ekarri dute
Getariyatik akerra;
kanpan-torrian ipiñi dute
Aita Santutzat dutela;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
Aita Santutzat dutela.

9

Donostiako arrantzaliak
dira txit gizon batuak,
Gaztelupeko sagarduakin
egiten ongi traguak;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
maiz bustirikan abuak.

10

Arrosatxuak bost osto ditu
krabelintxuak amabi,
Mari Joxepa nai duben orrek
eska bezaio amari;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
eska bezaio amari.